

2022

Anuario
de la Música

Musikaren
Urtekaria



**musika
bulegoa**

euskal herriko musika
bulego elkarte

2022 Anuario
de la Música
Musikaren
Urtekaria



EDITORIALA

2022 urteak zenbait ekarpen on ekarri dizkigu euskal musika sektorearentzat. Alde batetik pandemia globala lasaitu izanak, berriz ere publikoaren gertutasuna sentiarazteko aukera eman digu; bestetik, hainbat urte itxaroten ari ginen Artistaren Estatutua onartu izanak musikari eta teknikariei lasaitasun pixka bat eman die, nahiz eta argi daukagun zentzu honetan lanean jarraitu behar dugula egoera hobea bat lortu arte. Esperientzia guzti hauek Musika Bulegoari hausnarketa sakona egiten lagundu diote eta gertatutakotik ikasgai garrantzitsuak atera ditugu; aurtengo Urtekaria ikasketa horietako askoren isla dela uste dugu.

Ziurrenik garrantzitsuena musikak elkar zaintzarako daukan botereaz konturartzea izan da. Urtekari honetan horri buruz zenbait hausnarketa egin ditugu: osasun mentalaren garrantziari buruz edo gure ahotsari eta gorputzari nola kasu egin behar diegun mintzatzen diren artikuluekin. Eta, agian garrantzitsuena, publikoaren eta musikarien arteko komunikazioaren beharrari buruzko gogoeta bat ere aurkezten dugu.

Urte hauetan are garbiago ikusi dugu aniztasunak musika, kultura eta gizartea oro har, aberastu egiten dituela, horregatik datozen orrialdeetan orokorrean baztertuta dauden zenbait kolektiboek lekua egin diegu. Motxila 21 ekimenari buruz hitz egingo dugu, Musika Bulegoak antolatutako LGBTQ+ Jardunaldiaren bizitakoa kontatuko dizuegu, era oso originalean, eta normalki Euskal Herrian begirada jartzen ez dugun rap eta trap erroko musika talde berrien lehen pausoetaz hitz egingo dizuegu.

Momentu ona da ere atzera begirada bat egin eta maisuei esker ona emateko. Azken 20 urteetan Euskal Herriko musikaren zutabe garrantzitsu bat izan den Musikeneren urtebetetzea ospatuko dugu artikulatu batekin. Horrez gain, ezin gara ahaztu tamalez 2022an utzi gintuen Alfonso García de la Torre musikagileaz, Euskal Herrian musika elektroakustikoaren erreferente izan dena. Era berean omenaldi bat eskaini nahi genioke euskal folk musikarentzat hainbeste egin duen persona bati: Kepa Junkera.

Ikasketa guzti hauek datozen erronkei aurre egiten lagunduko digute. Musika Bulegoaren zuzendaritza berritu egin da eta prest gaude orain arte egin den lan on guztitik abiatuz pausu berriak emateko. Helburuak argi ditugu: Euskal Herriko musika erdigunean jarrita, gizartea hobetzea eta nazioarteko erreferentzia izaten jarraitzea. Dagoeneko hasi gara abesten, entzuten gaituzu?

Maddi Arana eta Aitor Bengoetxea

Euskal Herriko Musika Bulego Elkarte

AURKIBIDEA

Un año como ningún otro

04-05

Erresidentzia artistikoak

06-07

50 años de Musikaste

08

Kanta bat, hamaika esanahi

10-11

El boom de la música en directo

12-13

Urtea irudietan

14/60

#voznohaymásqueuna

16-17

Irakurtzen den musika

18-19

Artistaren estatutua

20-21

Rosana Corbacho

22-24

Basque.Music. Road Map

26-27

20º aniversario de Musikene

28-29

Topaketa profesionalak

30

Clubs de jazz

36-37

Nuevas tendencias en la música urbana

38-40

Alfonso García de la Torre

42-43

Musika Bulegoa Sariak 2022

44

LGTBIQ+ musika-ekoizpena Euskal Herrian

46-47

Jornadas de Música, Igualdad y LGTBIQ+

48-52

Música vasca en Nueva Zelanda

54-55

Motxila 21 mugak apurtuz


56-57

BIME, elkartasun bidea

58-59

Junkeraren hauspo berria

62-63



UN AÑO COMO NINGÚN OTRO

A muchas, afortunadamente, ya nos queda lejos en la memoria, pero 2022 no tuvo el más alentador de los inicios. A pesar de que iba a ser el año del reencuentro definitivo, inaugurar el curso con gran parte de las salas y clubes del país todavía cerrados, y aún con demasiada incertidumbre sobrevolando, era motivo de preocupación para todas y todos. Por suerte, con el paso de las semanas, la niebla se fue disipando y poco a poco certificamos que nuestro deseo —y el de toda la sociedad— iba a convertirse en realidad: la llamada «nueva normalidad» se abrió paso también para la cultura y los eventos musicales, tras dos años muy complicados de parón casi absoluto para el sector.

Recordarlo aún se hace difícil, aunque en términos generales y haciendo balance *a posteriori*, es innegable que 2022 fue un año excepcional en todos los sentidos: rebosante de *sold outs*, récords de asistencia y efervescencia compartida. El reencuentro que habíamos imaginado durante tanto tiempo no solo se hizo realidad sino que superó todas nuestras expectativas: las ganas acumuladas del público, junto al remanente de entradas para eventos pospuestos conservadas por los asistentes, fueron la combinación perfecta para asegurar un año inigualable tanto para festivales como para salas y eventos de todo tipo. Una celebración absoluta.

Así lo vivimos en Primavera Sound, con la primera edición doble de nuestro festival de Barcelona. Con el objetivo de honrar el elenco de artistas de las ediciones pospuestas en 2020 y 2021, y al mismo tiempo de seguir tomando el pulso al momento actual de la música —también de celebrar el vigésimo aniversario del evento, aunque fuera con retraso—, el festival se expandió por primera vez hasta los dos fines de semana entre el 1 y el 12 de junio, con resultados que hablan por sí solos: más de 400 artistas y alrededor de medio millón de asistentes protagonizaron la edición más especial de nuestra historia, la más emocionante y también la más exigente. Un vigésimo aniversario que, por si fuera poco, también llevó de viaje a Primavera Sound por el mundo: Los Ángeles, São Paulo, Buenos Aires y Santiago de Chile vivieron las primeras ediciones de sus propios festivales.

Fue un año de mucha ilusión y muchísima emoción, pero también de muchas dificultades y toneladas de trabajo. El de la música en directo, qué duda cabe, fue uno de los sectores más afectados por la pandemia, eso lo sabemos todos y todas, y retomar la actividad fue tan motivador como complicado por todas las empresas y profesionales

—especialmente del sector técnico— que no lograron resistir el embate de los dos años de silencio. Reconstruir un sector no es algo que pueda hacerse de la noche a la mañana, y aunque en la mayoría de casos podamos hablar de un 2022 exitoso, el reto inmediato debe pasar por volver a fortalecer la industria de la música en vivo para que todos sus integrantes gocen de la estabilidad deseada.

Al 2023, por tanto, le pedimos conservar esa efervescencia y esa energía contagiosa del año pasado, como si todos y todas estuviéramos viviendo un festival o un concierto por primera vez. Pero, al mismo tiempo, le pedimos convertirla en lo habitual: pasando de la excepcionalidad a la normalidad, recogiendo los frutos de todo aquello que brotó durante el año pasado y deseando que, de nuevo, no haya factores externos —guerras, inflación, incertidumbre— que dificulten nuestra actividad. Debemos retomar la senda tan positiva que dejamos en 2019, cuando la industria del directo en general, y de los festivales en particular, pasaba por un momento dulce tras años de desarrollo exitoso.

Así que este año será crucial para asentar todo lo que el año pasado apuntó. En nuestro caso, todavía más, porque 2023 también llega con la primera edición de Primavera Sound Madrid. La nueva sede del festival se suma a Barcelona para consolidar el modelo de los dos fines de semana consecutivos con la novedad de que, a partir de ahora, el primero va a ser en Barcelona (del 29 de mayo al 3 de junio) y el segundo en Madrid (del 4 al 11 de junio). Con el mismo cartel —salvo contadísimas excepciones—, la misma filosofía y la experiencia compartida, el objetivo es brindar un gran festival con dos sedes que, por supuesto, conservarán su propia idiosincrasia. Cada edición, a su manera, hará partícipe a su ciudad y a toda su industria musical local, bien a través de las salas de conciertos, los agentes culturales o el propio público. Y la afrontamos con la ilusión de una primera edición y la experiencia de veinte.

Aquí os esperamos para vivirlo juntos... y por muchos años más.

Almudena Heredero

Directora de Primavera Sound Madrid





© Ihintza Orbeagozo

MERINA GRISEK ETA BRAVAK

MUSIKA BULEGOAREN
ERRESIDENTZIA
ARTISTIKOETAN PARTE
HARTU
ZUTEN

Merina Gris taldeak eta Brava artistak 2022. urtean bi erresidentzia artistiko egin zituzten Rotterdamen eta Lisboa, hurrenez hurren. Euskal Herriko Musika Bulegoak kanpo zabalkuntzaren esparruan duen lan hildoari jarraituta, nazioarteko hainbat jaialdi eta musika azokekin sortutako akordioei esker, euskal artistei nazioarteko antzoki eta jaialdietan egonaldi artistikoak egiteko aukera eskaintzen zaie.

Honelako proiektuen helburua, batetik, euskal taldeen eta euskal musikaren promozioa eta zabalkundea sustatzea da eta bestetik, taldeen formakuntza eta esperientziarako beste nazioarteko taldeak eta profesionalak ezagutzeko eta haiekin lan egiteko aukerak eskaintzea. 2022. urtean Merina Gris taldea eta Brava musikaria izan ziren erresidentzia artistikoetan parte hartu zuten artistak.

Merina Gris Worm-en

Merina Gris donostiako hiru gaztek (Sara, Julen eta Paskal) osatutako taldea da. Guztiak aurretik musikaren industrian arituak ziren eta 2020an beren indar sortzaileekin bat egitea erabaki zuten. Proiektua inguruko eszena kulturalen ordezkatuta sentitzeko beharretik sortu zen, beren mezua modu natural eta arinean garatu ahal izateko espazio bat sortzeko. Beren lekua ez aurkitu eta erantzun gisa beren neurria egindako espazio bat sortzea izan zen haien helburua. Jorratzen duten musika estiloa «pop bortitz» gisa izendatzen dute.

2022. urtean Euskal Herri osoan zehar eskaini zituzten hainbat kontzertu. Hala nola, Gasteizen, Arrasaten, Iruñean, Bilbon, Gernikan, Donostian, etabar. Nazioarte mailan ere hainbat jaialditan hartu ahal izan zuten parte. Esaterako, aipatutako erresidentzia artistikoa Worm aretoa edo Fira Trovam azokan eskainitako showcase-a.

Worm aretoa Rotterdamen (Herbehereak) dagoen arte-ekoizpen alternatibo eta esperimental bultzatzen duen topagunea da. Kultura eta arte eszenikoaren elkarguneko sare-erakunde bat bezala funtzionatzen du eta artisten ideiak eta interesak bultzatzearen alde lan egiten du. Musika Bulegoak areto honekin duen akordioari esker, talde donostiarrak abenduan astebeteko egonaldia egin ahal izan zuten bertan esperimentatu eta beste kultur eragile eta inguruekin lan egitearen esperientzian sakontzeko.

Abenduaren 3an hasi zen egonaldi honetan, Merina Grisek Worm aretoko estudioan lan egiteko aukera izatzeaz gain, hainbat ekintza garrantzitsutan hartu zuen parte. Lehenik, abenduaren 6an kontzertua eskaini zuen aretoak berak antolatzen duen Snackbar Horizons proiektupean Sia Ahmad artista australiarrarekin eta Raymond MacDonald musikari eskoziarrarekin batera.

Abenduaren 8an, Frisiako Leeuwarden hirian bi abesti grabatu ahal izan zituzten zuzenean bertako Neushoorn kultur erakundeko telebistarako. Azkenik, abenduaren 9an Leeuwarden-eko Het Clubhuis aretoan kontzertua eskaini zuten egonaldiari amaiera borobila emateko.

Brava MIL Lisboan

Brava artista donostiarra ezaguna da bere DJ lanetan. Madrilgo Dembooty musika elektronikoaren kolektiboko parte

da eta Espainian, Suitzan, edota Californiako Coachella jaialdi ezagunean eskaini ditu emanaldiak bere ibilbidean zehar.

DJ izateaz gain, abeslari eta produktore moduan ere bere musika propioa sortzen du eta hainbat artista eta produktoreekin kolaboratu izan du. Hala nola, Greta Ch'aska, La Diabla edo Rumbler.

2022. urtean 30 kontzertu baina gehiago eskaini ditu Espainian, Frantzian edo Portugalen eta hainbat jaialdi ezagunetan hartu du parte: Sónar, BBK Live, Primavera Sound, etab. Proiektu hauen artean, Musika Bulegoak Lisboako MIL jaialdiarekin duen elkarlanari esker, Brava astebeteko egonaldi artistikoa egin zuen irailan.

MIL Lisboa portugaleko hiriburuan ospatzen den jaialdi garrantzitsua da. Egungo herri musikaren aurkikuntza, sustapena, balorizazioa eta nazioartekotzea ditu ardatz. Erakusleihen eta konbentzio formatuan, MILek etorkizuneko joerak aurreikusten ditu eta musika eta kulturaren sektorea baldintzatuko dituzten gaien inguruko eztabaida piztea du helburu.

Hala, 2022eko maiatzean, Musika Bulegoak Euskal Herriko musika elektronikoko ekoizleei zuzendutako deialdia zabaldu zuen eta Brava musikaria izan zen erresidentzia artistikoan parte hartzeko jaialdiak hautatutako musikaria. Irailean, Brava sei eguneko egonaldi artistikoa egin zuen Lisboan. Bertan, nazioarteko musika elektronikoko beste hiru artistekin –Bleid (Portugal), Clara! (Espainia) eta Black Mamba (Belgika)– elkarlanean aritu zen eta sorkuntza prozesu kolektibo batean murgildu ahal izan ziren.

Lanaren emaitza irailaren 28an ospatu zen MIL Lisboa jaialdiaren irekiera saio ofizialean aurkeztu zuten. Bertan, showcase-a eskaini zuten egonaldiko sorkuntza aurkeztuz.

Egonaldi artistikoak eta kanpo zabalkundea

Euskal Herriko Musika Bulegoak eta Basque.Music. ekimenak nazioarteko azoka, jaialdi eta aretoekin lankidetzara eta akordioak lantzen dituzte euskal musikari eta sortzaileek horrelako esperientziak bizi ahal izateko. Hauek, halaber, euskal musikarien profesionalizazioarako eta kanpo zabalkundarako proiektu estrategikoak dira.

2022. urtean Musika Bulegoaren kanpo zabalkuntza lan hildoko proiektuei esker hainbat euskal musikari eta taldek, esaterako, aipatutako Merina Gris eta Brava, Magia Bruta, Maraca Diablo, Chill Mafia, Verde Prato, Skakeitan, Izaro, Bulego, etab., Sevilla, Valencia, Lisboa, Helsinki edo Bogotá bezalako hirietara eramanez ahal izan zuten haien musika.

Aiora Marigil

Musika Bulegoa

50 AÑOS DEL FESTIVAL MUSIKASTE



Del 19 al 28 de mayo de 2022 se celebró en la localidad de Errenteria la edición número 50 del festival Musikaste, la semana anual dedicada íntegramente a la música escrita por los compositores vascos. Creado en 1973 de la mano de José Luis Ansorena y organizado inicialmente por la Coral Andra Mari y por el archivo Eresbil a partir del año 2000, el festival ha mostrado a lo largo de los años el pulso de la creación y de la investigación en la música vasca.

539 son los compositores, desde el siglo XII hasta el presente siglo XXI, interpretados en los programas de 448 conciertos. La música antigua ha aportado, junto a los nombres históri-

cos de Thibaut de Navarra y Juan de Anchieta, otros menos conocidos como Gonzalo Martínez de Bizcargui, Juan García de Salazar, Urbán de Vargas, Juan Francés de Iribarren, Joaquín Ojinaga o la escuela de Arantzazu, con Agustín de Echeverría, Andrés de Eguiguren, Manuel Sostoa o José de Larrañaga. Los centenarios han permitido recordar la música de los compositores clásicos del siglo XX como José María Usandizaga, Jesús Guridi, Padre José Antonio de Donostia, Beltrán Pagola, José Uruñuela, Tomás Garbizu o Jesús García Leoz, programando sus obras menos conocidas.

Pero Musikaste se ha distinguido por el apoyo, desde su primera edición, a la presentación de la obra de compositores vivos, desde los compositores de la generación del 51 (Luis de Pablo, Agustín González Acilu o Carmelo Bernaola) a las generaciones posteriores como María Luisa Ozaita, Anton Larrauri, Iruñeako Taldea o las surgidas tanto de las aulas de los conservatorios, primero, como de Musikene después: Ramon Lazkano, Gabriel Erkoreka, Antonio Lauzurika, y sus alumnos Sara Varas, Mikel Chamizo, Brais Nóvoa o Jagoba Astiazaran, entre muchos otros.

Musikaste ha sido asimismo el escenario-testigo de la evolución de los intérpretes de la música en Euskal Herria. Han pasado por sus escenarios una reorganizada Orquesta Sinfónica de Bilbao, una Orquesta de Euskadi desde sus inicios, junto a los principales conjuntos sinfónicos de banda, agrupaciones de cámara, así como 140 coros. Una especial atención a la música antigua ha permitido la actuación de grupos como Capilla Peñaflorida, Ensemble Diatessaron o Khantoria, y el apoyo a la música contemporánea ha supuesto la presencia de nuevos ensembles como Ostots, Ensemble Kuraia, Sinkro, Krater o Xare Laborategia.

El mayor logro del festival ha sido la creación de la entidad que hoy es su propia organizadora, el archivo vasco de la música, Eresbil. Una parte importante de su riqueza patrimonial se debe al acercamiento, mediante los conciertos de Musikaste, a familiares y compositores que con el tiempo han donado sus fondos musicales al archivo. Hoy en día la documentación generada por el propio festival supone un interesante fondo documental, con programas, catálogos, correspondencia y, sobre todo, el conjunto de más de 400 horas de grabaciones de música de creadores vascos.

La celebración de la edición número 50 ha sido culminada con *Musikaste 1973-2022*, publicación que recoge en «cifras» y en «colores» los principales protagonistas de la semana junto a los géneros, los lugares o el público, y que está disponible online en web de Eresbil (eresbil.eus).

Ya está en marcha la edición número 51 de Musikaste, en su aspiración a ofrecer novedades de la creación musical en Euskal Herria. ¡Larga vida a la Semana de la Música Vasca!

Jon Bagüés





Irudia / Irudiak: Maito Alvarado

K BUL EGO A

Kulturari
adi
Atención
a la cultura



K bulegoa


tel. 943 11 33 43

kbulegoa@gipuzkoa.eus · kbulegoa.eus

Santa Teresa komentua
Elbira Zipitria bidea 1
20003 Donostia / San Sebastián

Asteleheneretik ostiralera
De lunes a viernes

09:00 - 14:00



KANTA BAT

HAMAIKA ESANAHI

Baliteke ogibidearen albo-kaltea izatea, baina ezin dut musika komunikaziotik bereizi. «Musen artea» barne-prozesu batetik abiatzen da, ideien loratze batetik, ondoren kanpora ateratzeko. Musika hainbat esparrutatik azter eta uler daiteke, baina, nire aburuz, gizartean betetzen dituen funtzio guztiei komunikatzeko gaitasunak eragiten die. Erritmoak dantzatzera gonbidatzen gaitu, doinuek konpainia egiten digute, letrek gogoeta egitera garamatzate, eta melodiak hunkitzen gaitu. Bere boterearen adibide gutxi batzuk besterik ez dira horiek. Hain zuzen ere, musikak aisialdirako elementu bezala funtziona dezake, baita hezkuntzarako tresna gisa, eta gizarte-kohezionatzailearen balioa ere badu; kulturaren, moralaren eta historiaren transmisioan parte hartzen du. Dena, komunikazio-prozesu bat osatzen duelako.

Artikulu honek batik bat letrak ardatz baditu ere, argitu behar dugu ez dutela soilik eurek komunikatzen, baizik eta baita melodiak, instrumentuek, ahotsak, eta tonalitateak ere. Komunikazio-dimentsio bakoitzak ahalmena du eta entzuleari mezu bana bidal diezaioke, edo mezu osoan parte hartu. Baina, entzule guztiek modu berean jasotzen al dute mezu jakin bat edozein une eta lekutan? Demagun entzulea taberna builoso batean dantzan ari dela eta ezagutzen ez duen kanta bat jartzen dutela. Segur aski, ez du letra ondo ulertuko, komunikazioa oztopatzen duten elementuak baitaude testuinguruan (elkarrizketak, oihuak, jendetza...). Elementu horiei *zarata* deritze. Orain, jo dezagun pertsona berberak etxean bakarrik dagoela entzuten duela kantaren diskoa osorik eta kaskoak jarrita. Komunikazio-prozesu horretan zarata sortzeko aukera gutxiago dago. Haratago joanda: pertsona berbera artista jakin horren jarraitzaile bihurtzen bada, litekeena da letren berezko esanahitik harantz ere kantak zentzu individual eta berezia hartzea.

Testuinguruaz gain, entzuleak dituen balio eta kode kulturelek ere rol garrantzitsua dute; besteak beste hizkuntza, ideologia, ezagutza orokorra, edota jaioterria. Izan ere, autorearen horiekin bat egiten badute, *sintonian* badaude, aukera gehiago dago mezua hartzailearengana modu *garbiagoan* iristeko. Alegia, artistak mezua kodetu duen bezala deskodetzea entzuleriak. Honek adieraziko luke autoreak abestia konposatzean zuen intentzioa eta entzuleek letrak jasotzean egiten duten interpretazioa bat datozela. Teoria interesgarria bada ere, errealitatea oso bestelakoa dugu, praktikan, intentzio batentzako milaka interpretazio baitaude. Beste modu batera esanda: kanta batek hamaika esanahi har ditzake.



Egiazki, musika adierazpen artistikoa izanda, bere komunikazio-prozesua bi lagunen arteko aurrez aurreko solasaldia baino askoz urrunago doa. Teoria bera ere korapilatu egiten denez, funtsezkoa da kontuan izatea kanta baten interpretazioa alderdi askoren baitan dagoela. Entzuleak autorearen edo musikariaren kode eta balio kultural gehienak partekatuta ere, baliteke hark deskodetzen duena ez izatea sortzaileak komunikatu nahi zuena, bestelako faktoreak sartzen baitira jokoan kanta baten interpretazioan. Batzuek sortzaileari eragiten diote nagusiki: kantaren forma, kasu. Besteek hartzaileari: esaterako, bere *background*-a. Goazen banan-banan bi hauei erreparatzera.

Abestien bertsoak bi modu nagusitan idatz daitezke: esplizituki edo inplizituki. Letra esplizituek literalki jasotzen dituzte ideiak, modu zuzenean. Inplizituek, aldiz, modu figuratiboan osatzen dute mezua sinbolo, metafora, ironia, pertsonifikazio edo hiperboleak bezalako hizkuntza-baliabideen bidez. Mezuak modu esplizituan idazten direnean, irudimenerako eta interpretazio askerako bidea mugatzen da. Letra inplizitu bat ulertzea, berriz, prozesu konplexuagoa izan ohi da. Ez dut esan nahi aukera bat bestea baino hobea denik, preseski kanta gehienek mezu inplizitu eta esplizituak uztartzen dituztelako. Baina sortze-metodoa edo forma aldatzen den heinean, ziurrena da interpretazioa ere horren araberakoa izatea.


Bestalde, publikoaren bizitza-esperientziak ditugu. Ohikoa da nork kanta bat berera eramatea letrik islatzen dituzten istorio, bizipen edota ideiekin identifikazio-prozesu bat gauzatzen delako. Zer esan nahi dugu honekin? Bada, sarritan entzuleak inkontzienteki sentitzen duela kanta zehatz batek bere bizitzaren kontaketa egiten duela; bere burua protagonistaren esperientzietan islatuta ikusten du, alegia. «Kanta honek nitaz hitz egiten du» fenomeno da. Hau gauzatzen da artista, beste ezeren aurretik, gizakia delako, entzulea bezalaxe; hori dela-eta, pertsona normal bati gerta dakiokenak hari ere eragin diezaiolke. Horrela, arazo pertsonalak sozial ere badira gizartearen esperientzia partekatutak diren heinean. Desamodio abestiekin maiz gertatzen da, baina salaketa eta aldarrikapenekin ere jazo liteke, entzuleek dituzten jarrera politikoaren ideiak adierazten direnean.

Batzuek diote abestien benetako esanahia aurkitzeko bertsoen lerro-artean irakurri beharra dagoela eta artisten esfera pribatura hurbildu. Ariketa interesgarria da, hein batean artista askoren bizitzen parte batzuk pribatu izateari utzi eta publiko bihurtu baitira, eta letren atzean dagoena ezagutzeko informazio asko eskuragarri egon baitaiteke. Abesti batek esplizituki esaten duena baino askoz gehiago gorde eta transmititzen du, bai. Baina, niretzat, kanta bat zuzen ulertzeko ez da ezinbestekoa sortzailearen errealitatea arakatzea, ez baitago interpretazio okerririk. Musikak, plazaratzen den unetik, soilik artistena izateari uzten dio; bere jabegoa zabaltzen da (zentzu figuratiboan, ez legezkoan). Nork bere egiten du eta lotura horretan ematen dion esanahia autoreak ematen diona bezain egiazkoa da.

Gizartearen balioak eraldatzen doazen bezala, abesti batek helarazten duenak ere bilakaera bat du. Mezu matxistak ez ziren bereziki deigarriak duela hamarkada batzuk, gizartearen barneratutako balioak transmititzen zituztelako. Bi emakumeren arteko sexu-harremanak jorratzen zituzten letrak, ordea, kaltegarritzat jo ohi ziren; haatik, egun, LGTBQ+ errealitatearen normalizatorako bidetik doaz abestiak ere. Musika ez da ez finko ez tinko, adierazpen likidoa da. Melodien olatuen antzera, letren zentzua ere haizeak darama. Eta kanta bakar horrek, kresal usainak bezala, beti jarraituko du bakoitzarengana iritsi eta zerbait ezberdina pizten bihotzean.

Marina Landa González

-
-





2022 fue el año de la vuelta a la normalidad. O tal vez no. Es cierto que los espacios para conciertos abrieron sus puertas sin restricciones en los aforos, sin la exigencia del uso de mascarillas y sin que el público tuviera que vibrar sentado. Volvieron los festivales, los conciertos que se cancelaron una y otra vez, las nuevas producciones, las giras incansables... una «explosión de oferta y demanda», tal y como asegura Amaia Ispizua, promotora en Get In. «Se acumulaban proyectos artísticos que no habían podido ser presentados en directo, y aunque valoramos positivamente esta reactivación, la miramos con cautela». Pau Vargas, director de Panda Artist Management, no puede estar más de acuerdo con ella: «Ha sido un año caótico», afirma, «con una sobreprogramación y una sobreestimulación que hemos salvado como hemos podido y, en algunos momentos, de forma menos profesional».

Las empresas del sector técnico también coinciden en que la música ha vuelto con mayor intensidad que en el perio-

do anterior a la pandemia. El director de ABS Iluminación y presidente de Musika Industriaren Elkarte (MIE), Álvaro Sanz, lo explica por «la necesidad colectiva de volver a los conciertos». Y, precisamente por esa ilusión, «no hemos aprovechado las reflexiones que hicimos durante el parón de la actividad para mejorar las producciones, la calidad, la seguridad y la profesionalización en general». Otra dificultad añadida, apunta, «ha sido la de desarrollar inversiones estratégicas debido a problemas de proveedores para suministrar productos, su encarecimiento y la falta de personal cualificado». Para tranquilidad del sector, tanto desde las empresas de producción en directo como de producción técnica ven esta situación como algo temporal y esperan que «el mercado se reajuste en los próximos meses».

La industria discográfica valora 2022 como «un buen año a nivel productivo», en palabras de Andrés Camio *Jitu*, responsable del área musical de la editorial Elkar. Los datos le dan la razón, ya que en la última edición de Durangoko

Azoka se presentaron 141 novedades discográficas, medio centenar más que en 2019. Pero *Jitu* cambia el gesto cuando hablamos de las ventas físicas. «Siguen en caída libre», asegura, «sobre todo el formato CD», ya que parece que el vinilo recupera «algo de espacio». El aumento de los costes de las materias primas (papel, plástico...) también es «preocupante» y agrava la crisis particular que ya venía arrastrando esta industria por la transformación de los hábitos de consumo musical. «Lo digital se ha impuesto como forma de consumir música y aun reconociendo que sus ingresos nos suponen una ayuda, no da para soportar todos los gastos de una producción solo con ese retorno. A día de hoy, todas las empresas del sector se apoyan en algo más que la producción discográfica para mantener la actividad (*management*, *booking*, editorial, distribución física y digital...). Pese a que el análisis de las discográficas no es demasiado positivo, desde Elkar destacan que «la salud de la música en general no parece preocupante. El consumo crece año tras año, hay multitud de grupos jóvenes, el auge de los grupos femeninos es imparable y siempre surgen citas inevitables, como el concierto de Hertzainak, con 50.000 personas en tres conciertos, que se convierten en un acto social de asistencia obligada».

Para Amaia Ispizua, la digitalización es un fenómeno que «ya venía afectando al sector desde hace tiempo», si bien es cierto que «ha vivido un proceso de aceleración durante la pandemia». Coincide con *Jitu* en que el mayor impacto «lo han sufrido las discográficas» por la transformación «irreversible» del formato físico al digital. La visión positiva del fenómeno de la digitalización la aporta Álvaro Sanz, quien asegura que el hito de la tecnología LED, por ejemplo, «supone una reducción en los consumos eléctricos que trae consigo directos mucho más sostenibles». Y a esto hay que añadir la digitalización de la gestión, el diseño y la programación, que «permite una importante mejora de gestión de los directos».

A la sobreprogramación, la caída en picado de las ventas y la transformación de los hábitos de consumo, hay que sumar los vestigios que nos ha dejado la pandemia de covid-19, que desencadenó la mayor crisis económica en más de un siglo, y que ha tenido sus consecuencias para la industria musical. Sanz destaca «la pérdida de talento técnico y creativo que la pandemia ha alejado de nuestro sector». *Jitu* subraya «el incremento en los costes, la escasez de materias primas, el coste de la energía que afecta a toda la cadena de producción... una subida de precios que es imposible trasladar al público». Amaia Ispizua coincide con estas afirmaciones: «Tenemos una inflación sin precedentes que repercute en todos los niveles de organización de un concierto y, directamente, en el precio de las entradas». Pese a todo, cree que aún es pronto para valorar de manera global en qué se ha convertido la industria musical después de la pandemia y se queda con «la respuesta positiva a la reactivación de la actividad. Gran parte del público considera la cultura como un bien de primera necesidad y esperamos saber agradecer y cuidar bien a este público y a nuestros artistas».

Con esta premisa, seguro que el sector logra darle la vuelta a la tortilla, porque la industria musical ya ha demostrado en anteriores crisis que es capaz de resurgir de sus cenizas. «Tenemos agilidad para variar el rumbo a tiempo y el ser

multitarea hace que vayamos adaptándonos al medio», asegura el responsable de Elkar. También han influido en este resurgir aspectos menos positivos, entre los que se encuentra «ser una industria frágil acostumbrada a vivir en una precariedad normalizada» y el tratarse de un «sector muy atomizado compuesto por una gran cantidad de trabajadores/as autónomos», explican Amaia Ispizua y Álvaro Sanz.

La profesionalización sigue siendo, por tanto, una asignatura pendiente para el sector de las industrias culturales y creativas. Pero no la única. Mejorar la colaboración público-privada, lograr la igualdad de género, avanzar en los convenios colectivos o trabajar para el desarrollo de audiencias culturales son aspectos que se suman a la lista de tareas que tiene que afrontar el sector. Y, por supuesto, darle un verdadero empujón al Estatuto del Artista: «Hay que proteger al sector, reconocer los oficios que existen relacionados con la cultura y regularlos como se regulan otros sectores, combatiendo la precariedad y dotando a los y las creadoras de medidas que garanticen su seguridad económica para crear una industria cultural sana», afirma *Jitu*.

También hay que mirar al futuro como sector. «Dejar de pensar de forma individual, y no solo en el orden y la forma de trabajar sino que han de intervenir también las emociones». Este es el principal desafío para Pau Vargas, quien cree que el sector «debe reemocionarse con la música». Y construir de manera colectiva es precisamente el objetivo de la asociación Musika Industriaren Elkarte (MIE), que aglutina a más de 60 empresas de la industria musical de Euskal Herria. «Tenemos que intentar que el sector tome conciencia de la importancia de avanzar, contrastar, discrepar...», asegura su presidente, Álvaro Sanz. «Hay que detectar problemáticas comunes. Somos un sector atomizado y la inercia siempre nos ha llevado a buscar soluciones particulares, pero las medidas importantes deben ser las que nos sirvan a todos», añade *Jitu*.

La industria musical deja atrás un año de luces y sombras y se encamina hacia un futuro de adaptación e innovación tecnológica al que tendrá que hacer frente desde la unidad y la profesionalización del sector.

Ruth Manzano

Musika Industriaren Elkarte



BBK LIVE



© Sharon Lopez

Tras unos primeros meses de incertidumbre, en la primavera de 2022 la asistencia a los conciertos se fue animando y con el verano se produjo una verdadera explosión del público, que llenó los festivales ansioso por volver a disfrutar de la música en directo. BBK Live, el festival más grande de Euskal Herria que organiza Last Tour, celebró en julio su 15ª edición con récord de asistencia: 115.000 personas se reunieron durante tres días en Kobetamendi para bailar al ritmo de la música de más de 100 artistas nacionales e internacionales, con grupos como Florence + The Machine, The Chemical Brothers, Arctic Monkeys o Pavement encabezando el cartel.

FITO en SAN MAMÉS



© Pablo Vifias

Unas semanas antes del inicio del BBK Live, San Mamés vivió otro evento de multitudes de la mano de Fito & Fitipaldis. Fito Cabrales y su banda fueron celebrados en su propia ciudad por más de 45.000 asistentes, congregados en el estadio del Athletic para corear éxitos tan rotundos como *Por la boca vive el pez*, *La casa por el tejado* o *Antes de que cuente diez*, junto con otras muchas páginas clásicas y más recientes del artista bilbaíno, quien contó con invitados como Carlos Tarque, Leiva o Iñaki Uho (Platero y Tú) para acompañarlo en una velada memorable.

Euskara. Kultura. Mundura.



#VOZNOHAYMÁSQUEUNA

Siempre utilizo ese *hashtag* cuando hablo acerca de la voz en las redes sociales. Suena obvio pero, al menos en mi caso, no fui consciente de ello hasta que la perdí y naufragó mi capacidad para comunicarme con el mundo, para expresar cómo estaba, qué sentía, qué anhelaba, tanto en mi día a día como en mis conciertos. Es una sensación absolutamente aterradora, más aún si la voz es tu herramienta de trabajo, un trabajo que te apasiona y que consiste en compartir tus sentimientos a través de la música.

Ese episodio marcó mi vida para siempre. Afortunadamente, tuvo un final feliz. Gracias a mis maestras, Lisa Paglin y Marianna Brilla, de New Voice Studio Brilla-Paglin, aprendí a entender el aparato fonador con una nueva perspectiva, y poco a poco me di cuenta de que era importante compartir ese aprendizaje con el mayor número posible de personas.

If singing is not easy, it s not correct

Fue una de las primeras frases que compartieron conmigo: si cantar no resultaba fácil, significaba que no era correcto. Esta contundente afirmación ponía en tela de juicio el *modus operandi* y la moda actual del sobreesfuerzo que busca el aplauso fácil y el espectáculo en detrimento de la comunicación genuina. Hoy en día, los problemas vocales en cantantes, tanto en el mundo de la música moderna como en el repertorio lírico, comienzan cada vez a edades más tempranas y tienen consecuencias tan graves que obligan, en muchas ocasiones, a pasar por el quirófano. La «cultura del grito», como siempre la denomino, nos ha acostumbrado a escuchar voces al límite de sus posibilidades y a contemplar rostros desfigurados por expresiones doloridas, con la boca abierta de par en par y los músculos del cuello en tensión absoluta. Puede que el problema radique verdaderamente en que el público aplaude, jalea, desea esa escenificación del sobreesfuerzo.

¿Qué pensaría, por ejemplo, Frank Sinatra de esta manera de cantar? Los cantantes antiguos estaban sobre el escenario hasta el final de sus vidas, pero ahora muchos niños y niñas terminan siendo víctimas de los peligrosos concursos de talentos y padecen serias afecciones vocales antes de llegar a la pubertad por esa moda terrible —desconozco su procedencia y sus motivos— de aparentar, a través de la voz, una edad superior a la que tienen realmente, igual que muchas niñas juegan a ponerse los tacones de su hermana mayor y a maquillarse con su pintalabios para fingir algo que aún no les toca ser. En el mundo de la música lírica ocurre lo mismo: escuchamos voces jóvenes que fuerzan su instrumento y lo modifican para «oscurecer» o «engordar» la voz, y lo justifican argumentando que «es lo que hacen todos» o, aún peor, que «si no canto así, no me van a contratar». Estas afirmaciones las he escuchado yo misma al interesarme por las causas de esas emisiones tan ficticias, tan impostadas (de *impostura*), tan lejanas de la propia esencia personal y corporal, tan ajenas a la naturaleza del propio instrumento; esos sonidos que impiden que los sentimientos se comuniquen con honestidad genuina, puesto que están cubiertos de una capa que distorsiona el

timbre real y la emoción verdadera de la persona que está cantando, aunque no sea consciente —como tampoco yo lo era— de que tal cosa ocurre.

Jamás deberíamos perder de vista el hecho de que tenemos solamente dos cuerdas vocales, las cuales son pequeñas —las de las mujeres en edad adulta miden entre 1,2 y 1,7 centímetros; las del hombre adulto, entre 1,7 y 2,5 centímetros; en edad infantil el rango fluctúa entre 0,5 y 1,2 centímetros—. Estas son irremplazables y las utilizamos muchas horas al día para hablar, reír, llorar, gritar, gemir, cantar... Acompañan y expresan nuestros sentimientos y nuestros pensamientos, y el usarlas mal y abusar de ellas no solo puede causar enfermedades serias sino que merma nuestra propia identidad.

Deberíamos preguntarnos por qué nos hemos acostumbrado a este tipo de agresiones sonoras. Cuando cantamos —y, por supuesto, cuando hablamos, o gritamos, o lloramos— ocurre un fenómeno que considero muy íntimo y precioso: las cuerdas vocales emiten frecuencias que viajan de manera invisible, en forma de ondas, y «chocan» con el objeto que encuentran en el camino. Ese objeto, que puede ser el cuerpo de una persona que nos está escuchando cantar, recibe la «caricia» de esas ondas, por lo que nuestra finalidad como intérpretes debería ser «acariciar» al público con nuestro sonido, en lugar de agredirlo.

El método de mis maestras

Se denomina *Vocal Balance* y recupera la tradición canora que se mantuvo hasta principios del siglo XX. En ella, el hablar y el cantar solo se diferencian en el legato, en esa continuidad de la línea melódica plasmada en una partitura. La respiración también se realiza de manera orgánica, sin grandes inhalaciones y sin tensiones al exhalar el aire. La «sala de máquinas», como yo la llamo, se encuentra del diafragma hacia abajo, y la parte superior del cuerpo funciona como una caja de resonancia. Asimismo, la articulación de las palabras se realiza de manera suave para no interferir en el flujo constante de aire que se está exhalando, aunque de forma precisa para que la inteligibilidad del texto sea absolutamente clara. El concepto de «llevar la voz a la máscara» —una noción habitual en el mundo de la lírica— es irrelevante, porque la voz solamente suena en un lugar: las cuerdas vocales; físicamente no se puede «llevar» a ningún otro sitio. La voz resuena, no suena, en el pecho cuando cantamos las notas más graves, y también en los resonadores faciales al emitir frecuencias más agudas.

En resumen, y como afirmaba Pavarotti, «cantar es un grito educado», y como dicen mis profesoras, «it's not a big deal».

Raquel Andueza





IRAKURTZEN DEN MUSIKA, ENTZULE FINENENTZAT



Musika industriak liburuak behar ditu. Eskuliburuak, industriari nahi duen musikari berria itsumutuan aritu ez dadin, eta saiakera eta biografiak, pentsamenduan eragin eta iraganetik ikasiz etorkizuneko ildo berriak marrazteko. Zeregin horretan harri berriak jarri dira 2022an, Liburuak argitaletxearen sorrerarekin, batetik, eta aurtengo uztak utzi dituen ale emankorrekin, bestetik.

Liburuak argitaletxearen sorrera izango da, ziurrenik, arlo horretan aurtengo nobebaderik mamitsuena. Last Tour-en zigilupean sortua, musikari lotutako edizioetan antzematen den hutsunea betetzera dator Liburuak. «Musika industria bera ulertzeko liburuak falta dira», aipatu digu, zorrotz, ekimeneko kide Libe Manzidorrek: «Musikaren munduan, gauza bat da musika ikastea, konposizioa adibidez: horretarako badituzu gidaliburuak, partiturak... erreferentzia mordo dago. Baina zer gertatzen da, adibidez, jabetza intelektualaz, zigiluen sorreraz... informazioa behar baduzu? Ingelesez badago informazioa baina gazteleraz oso gutxi, eta euskaraz ia ezer ere ez. Liburu teknikoak falta dira, musikaren negozioa 360 gradutan ulertzeko».

Hala, lau edizio-ildo edo bilduma sortu dituzte: Bihotza (biografia eta autobiografiak, iraganetik ikasiz eraikitzeko), Burua (saiakerak, pentsamenduan eragiteko), Eskuak (liburu teknikoak, industria ulertzera bideratua) eta Arima (diziplinen arteko topaguneak sortzeko). 2022 urtean zehar sei titulu argitaratu dituzte eta, Manzidorrek aurreratu digunez, 2023an hilabete bakoitzeko ale bat argitaratzeko asmoa dute («euskaraz ere egongo da zer edo zer») eta ahalegin berezia egingo dute aipatu «industriaren gidaliburu» sortzeko. «Arazo asko ari gara izaten honetaz asko dakien norbait topatzeko, are gehiago, dakien hori modu ordenatuan eman eta ikasketa bihur dadin», onartu du, baina dagoeneko zeregin horretan «urte pare bat» daramatela eta argia 2023an ikustea espero dutela ziurtatu digu. Hala izan bedi.

Ondare ez materialaren bilketa

Liburuak-ek musikaren munduari ekarriko dion onura datozen urteetan ikusiko da. Baina ez dira, zorionez, musika-liburuaren arloari ekarpena egiten dabiltzan bakarrak. Bide horretan asko dute esateko Banizu Nizuke-koek. Portugaleteko kultur elkarte hau 2009an herriko musika katalogoa egiten hasi eta, azken hamarkadan, Euskal Herriko musika ondarea jaso-



©: Foku

tzen duten argitalpen bikainak kaleratu ditu. Afiziotik egiten dute lan, aurrekontu murriztarekin baina gogoz, kalitatezko ekoizpenak sortzeko. Beraiei eskertu behar diegu *Muskaria* aldizkariaren digitalizazio eta reedizioa, *Euskal Herriko musika argazkilaria*k (hainbat egile, 2011-2013) bilduma grafikoa edota Willis Drummond, Dut eta beste hainbat musika talderen monografikoak.

«Inor kontaktzen ari ez den zerbait kontaktzen ari garela uste dut. Inor ez da ondare hau biitzez arduratzen eta, hobeto edo okerrago, baina kontaktzen ari gara behintzat. Euskal kulturaren eta euskal musikan oinarritutako materiala aportatzen ari gara», ziurtatu digu, pentsakor, Pablo Salgado Méndezek. Elkarteko kide izateaz gainera argitaratu dituzten hainbat libururen idazlea ere bada Salgado, tartean aurtengo musika-liburuen uztaren harribitxietako bat: *Bera*.

Joseba Irazoki, Petti, Joseba B. Lenoir, Estitxu Pinatxo... Herri nafarra aipatu eta musika erreferentziak etortzea, dena da bat. Ahoz aho zebilen kontua zen zer gertatzen ote zen Beran horrenbeste musikari (3.000 biztanleko herria da) eta batez ere kalitate musikala nabarikoaren sorlekua izateko, eta «misterioa»-ri Salgadok jarri dizkio argudioak. «Bera herri txikia da eta aisialdia Musika Eskolan zentratzen da, 8-9 urte dituztenean denak pasatzen dira bertatik, eta irakasle asko, Joseba Irazoki adibidez, irakasle eta musikari profesionalak dira: haurrentzat plus bat da asteburutan kontzertutara nola doan etabar, bere bizimodua ikustea. Frantziako gertutasuna ere hor dago, musikari dagokionean modernoagoak izan baitira beti...», hasi zaigu zerrendatzen Salgado. Belaunaldiz belaunaldi disko «preskriptore» izan diren melomanoak eta herri txikietan elkarren sostengu izateko dagoen ohitura liraketeke, egilearen hitzetan, Bera musikari dagokionean «Euskal Herriko herririk interesgarriena» izatearen gakoak.

Misterioa argituta, lan honen atzean dagoen izerdiaz galdetu diot Salgadori. Bi urteko lana izan da; 60 elkarrizketa egin eta 100 erreferentzia bildu dituzte. «Hara joan behar da, egunak

pasa, elkarrizketak egin... eta gero edizio prozesu guztia dator. Zortea dugu, irabazi asmorik gabeko elkarteak garelako eta gure helburua hutsean geratzea delako». Alegia, errentagarritasun ekonomikoari begira baleude, lan hau egitea, finean, «ezinezkoa» izango litzatekeela.

Iritzi berekoa da Harkaitz Cano ere. Salgadok eman digun amutik tiraka, zuzenean galdetu diogu: *Ni ez naiz Mikel Laboa* liburu grafikoa egiteko Mikel Laboa Katedraren laguntzarik izan ez bazenute, bideragarria izango zatekeen? «Ez, inolaz ere ez», erantzun digu, irmo. Idazle donostiarrek Unai Iturriagarekin eskuz esku ondu du komikirako gidoia eta ilustrazioak, aldiz, Joseba Larratxe *Josevisky* marrazkilaria irundarrarenak dira. «Josebak bi urte eman ditu *full time* hau egiten. Marrazkilaria baten bi urteko soldata behar da halako proiektu bat aurrera eramateko eta berak pribilegiatutzat jotzen du bere burua, baina hori gure begiradan dagoen akatsa da», jarri du azpimarra Canok.

Mikel Laboa Katedrak urtebeterako proiektutzat zuena behar bezala ontzen hiru urte eman dituzte, eta emaitza Mikel Laboaren unibertsoa gutxi bezala jasotzen duen nobela grafiko bikaina da. «Katedrak gurekin pazientziarik izan ez balu, ezinezkoa izango litzateke lan hau horrela egitea», berretsi du idazle donostiarrek.

Era batera edo bestera, agerikoa da musikak gisa honetako argitalpenen beharra ere baduela sortzen duen ondare ez material hori gordeko bada. Eta hortik eratoritzen den aberastasuna ezin da errentagarritasun ekonomikoaren terminoan neurtu.

Amalur Artola



ARTISTAREN ESTATUTUA



Sentsazio

gazi-gozoak

Nahikoa da Estatuko Aldizkari Ofiziala begiratzea edo edozein aldizkaritako kultur atalak irakurtzea, kultur sektoreko hobekuntzei dagokienez, Estatuko gobernuak duela urtebete inguru azeleragailua zapaldu duela ikusteko. Kultur kudeatzailea naizen aldetik, hainbat albistek, neurri berriek eta proposamenek maiz astindu naute, egia esan; oraindik neurri bat ezartzeke eta beste hainbeste aztertu eta hausnartu beharra. Zorioneko momentuan gaude, ordea, musikarien, eta oro har kultur langileen intermitentzia eta bere lanaren berezitasunak kontuan hartuak izan direlako eta errealtate hori, nolabait, trasladatzen duten neurriak lortu direlako.

Euskal Herriko Musikarien Elkarteak urteak daramatza Artistaren Estatutuaren testuinguruan lanean. Unión de Músicos federazioko kide bezala oso gertutik bizi izan ditugu eztabaidak, oztopoak eta akordioak Estatuak sortutako mahai sektorialetan. Ondorioz, sektoreak azken urtetan egin duen esfortzuari esker, artistei, nolabait, sistemaren barruan beraien lekua eman zaiela esan genezake. Orain arte sistematik kanpo zeuden, erabat prekarizatuta eta inolako babesik gabe.

Dagoeneko, denok dakizkigu pasa den urtarrilaren 10ean Diputatuen Kongresuan onestu ziren neurriak: lan artistikoaren eta erretiroaren arteko bateragarritasuna; 1435/1985 Errege Dekretuaren lan-harreman berezia duten artistentzako langabezia-prestazio espezifikoa eta diru-sarrera txikiak dituzten artista autonomoentzako kotizazio berezia. Azken neurri honek oreka falta izugarria du: urtean 3.000€tako diru-sarrera garbiak gaintzen ez dituzten artistei zuzenduta dago (250€ garbi hilabetean); eta, ordaindu beharreko kuota 161€ hilabetean? Nola liteke? Bestalde, langabezia-prestazioak artistei eta arte eszeniko, musikal eta ikus-entzunezko teknikoei eragiten die; artista plastikoek, idazleek edo konpositoreek ezin izango dute eskatu.

Hainbesteko oiarzun mediatikoa izan ez dituzten neurriak ere onartuak izan dira. Hauek zuzenean langileen hileko likidezari eragiten diote: 1435/1985 EDko lan-harreman bereziaren menpean kontratatutako artista eta teknikarientzat PFEZ-ren atxikipena %2 izango da, eta ez %15-ekoa orain arte bezala, beti ere kontratuak urtebete baino gutxiagoko iraupena baldin badu. Artista autonomoek ere murrizketak izan ditzazkete (PFEZ %15etik %7ra) aurreko urteko diru-sarrera gordinak 15.000€ baino gutxiago izan badira. Azkenik, kultur sektorerako E.J.Z. epigrafe berriak sortu dira: idazleentzat, konpositoreentzat

El pasado 22 de septiembre nos dejaba demasiado pronto el compositor, profesor y gestor musical Alfonso García de la Torre, gran amigo y compañero de innumerables aventuras musicales. Como bien dice Marisa Manchado en el recuerdo que le dedicó en la revista *Scherzo*: «Una enfermedad breve pero imparable nos ha arrebatado a un referente absoluto en nuestro país en la música electroacústica, en el arte sonoro, en la música más arriesgada y más comprometida con la innovación, con el riesgo expresivo, con el Arte, así con mayúsculas. En tiempos oscuros y miedosos, perder a un incansable militante de la vanguardia tecnológico-musical es perder un puntal, una columna sólida de nuestra cultura, y de nuestra cultura más internacional también».

La labor pedagógica de García de la Torre comienza en 1985, cuando se inaugura el nuevo edificio del Conservatorio Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz y su entonces director, Carmelo Bernaola, le hace responsable del recién creado Laboratorio de Música Electroacústica con el objetivo de incorporar las nuevas tecnologías en las enseñanzas musicales, lo que en aquellos tiempos fue una experiencia pionera en nuestro país.

García de la Torre fue, por lo tanto, profesor de muchas generaciones de estudiantes que son los profesionales de hoy y mañana. Es sorprendente que todos sus alumnos guarden un excelente recuerdo de él, no solo como buen profesor sino también como persona amable y cercana. Nunca enfadado y de sonrisa fácil, nos trataba como personas y no solo como alumnos, y nos escuchaba y apoyaba en todos nuestros proyectos por disparatados que fueran.

Nos enseñó las claves de la electroacústica y de la tecnología aplicadas a la composición y a la interpretación, y sobre todo, abrió nuestras mentes y nuestros oídos a un maravilloso universo de posibilidades expresivas donde el límite solo lo impone nuestra imaginación. De esta manera, asistió cual matrona a la gestación de una parte importante del patrimonio musical de Euskal Herria.

La necesidad de estrenar estas obras llevó a García de la Torre a fundar, junto a Juanjo Mena, el Grupo Instrumental Jesús Guridi, conjunto que en 2005 refundó como Ensemble Sinkro y que actualmente sigue desarrollando una actividad esencial en la promoción y difusión de la música de nueva creación.

Esto, a su vez, lo condujo a organizar conciertos y festivales donde mostrar este trabajo al gran público. Los números nos dan una idea de la impresionante labor que realizó como gestor cultural: 6 ediciones entre los años 1994 y 2003 del Ciclo de Música Contemporánea, 19 ediciones entre 2004 y 2022 del Festival Bernaola Zikloa, 10 ediciones entre 1988 y 2004 de las Jornadas de Música Electroacústica, 8 ediciones entre 2005 y 2012 del Festival Sinkro, innumerables conciertos del Ensemble Sinkro por todo el mundo con más de 250 obras encargadas y estrenadas, 20 CDs editados en Sinkro Records y 12 partituras publicadas en Sinkro Scores.

Su enorme generosidad y trabajo desinteresado seguramente mermó su legado como compositor, que nos ha dejado un puñado de obras de gran belleza y sensibilidad en las que los instrumentos tradicionales se transforman gracias al procesamiento en vivo y se mezclan con todo tipo de sonidos sintéticos y naturales. La colaboración con artistas de otras disciplinas lo condujo a producir espectáculos en fusión con la danza, el *video mapping*, la pintura y el teatro. Una parte importante de su labor creativa se desarrolló en el campo de la improvisación libre, creando el grupo Sirius, con el que ha tocado y producido numerosos espectáculos.

El mejor homenaje que le podemos hacer es seguir con su labor. Así, en la próxima edición del Bernaola Zikloa, la número 20, le rendiremos homenaje con su música y la de Sinkro.

Guillermo Lauzurika





Foto: Foku

Musika Bulegoa Sariak 2022



Musika Bulegoa Sariak bere seigarren edizioa ospatu zuten maiatzak 17an Barakaldoko BEC-en (Bizkaia). Azkeneko bi urteetako garai ilunak alde batera utzita, euskal musika panoramako sari garrantzitsuenek bere ohiko formatua berreskuratu zuten eta ekitaldia irribarre, besarkada eta jai giro apartarekin ospatzeko aukera egon zen. Zuzenekoak ez ziren falta, normaltasunerako bidea irekita zegoela erakutsiz.

Amak, Chill Mafia, Ether Ensemble, Ramon Lazkano, Gaur, Maite Larburu, Olatz Salvador eta Verde Prato sarituak izan ziren 100 proposamen baino gehiagoren artean, erdiak emakumeak burututako proiektuak izanik. Bestalde, Trio Zukan-ek eskuratu zuen Etxepare

Euskal Institutuaren Saria euskal musika gure mugetatik kanpo zabaltzeko egiten duen lanagatik. Azkenik, Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteko (EHMBE) zuzendaritza-batzordeak sari berezia eman zion Motxila 21 taldeari «bultzatzen duen elkartasuna eta musikarien arteko elkarlana eredugarria delako».

Ruth Manzano
Musika Bulegoa





Incentiva Music

Kenkari fiskalak & Finantzaketa & Dirulaguntzak

By:

Sympathy ©
for the Lawyer

Bultzada ekonomikoa musika-sustatzaileentzat

INCENTIVA errentagarritasuna da.

Kultur jalaldi eta zuzeneko ikuskizunetan interesa duten inbertitzaileen sare sendoa eginez, sarrerak sortzen ditugu.

INCENTIVA lasaitasuna da.

Musika kenkarietan eta fiskaltatean adituak diren profesionalen taldea.

INCENTIVA berrikuntza da.

Musika Industriaren beharrian praktikoetarako pentsatutako prozesu arinak eta teknologi berritzaileak.



Diruz lagundutako proiektua:



Ministerio de
Cultura,
Herentzia,
Turismo
& Deporte



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



MAD · BCN · GRX · CDMX

LGBTBIQ+

musika- ekoizpenaren panorama Euskal Herrian.

(HAUSNARKETARAKO GAI BATZUK)

Hausnarketarako, euskal musika sorkuntzaren nolakotasuna atzerabegirako batean ardatz biren arabera antola daitekeela otu zait, bi ardatz hauek sorkuntza musikalaren nolakotasunaren mapa bat irudikatzen aukera eskaintzen digutelarik.

X ardatzean bitartekoak hartuko dira kontutan, disketxea, eta musika eta musika talde edo abeslariaren kokapena. Mutur batean *mainstream* deritzon musika mota topatuko genuke, bestean aldiz, autokudeaketa, zigilu txikiak eta medio xumeekin editatzen den musika.

Y ardatza sortzaileen nolakotasun politikoaren bitartez egituratuko da: identitate politiko eta aldarrikapen-mezua definitua dutenak izango dira mutur batean, identitate politiko espektro handi batez ulertuta; beste muturrean, politikoki definitu gabeko mezuak eta identitateak leudeke,

entitate edo nortasun politiko duen kolektibo konkretu baten parte ez izateak alegia. Kontutan hartzekoa da ere, historikoki orokorrean mezu edo diskurtso politiko duen sortzaile gehienak ezker, edo iraultzaile-erreibindikazioan kokatu direla, mezu politiko argi ezak *statu quo*-arekin nolabaiteko adostasuna adieraziz.

Ardatz hauen araberako mapan talde mota desberdinak koka daitezke. Adibide gisa eta hobe uler dadin, adibide muturrekoak azalduko ditut: Mucedades (*mainstream* taldea bitarteko ekonomikoez hornitua eta mezu politiko definitu gabekoa oro har) Vs Eskorbuto (autokudeaketa-zigilu txikia eta medio xumeekin egindako musika eta mezu politiko definitua duen taldea).

Negu Gorriak (euskal musika munduan mezu politiko definitu eta iraultzailea duen taldea, hasiera batean medio

xumeekin eta zigilu txikiarekin sortua baina denborarekin euskal *mainstream*-aren esferan sartu dena, talde ikonikoa bilakatu) Vs La Buena Vida (mezu politiko ez definitua eta baliabide xumeekin eta eszena murrizt batetan sortua).

Bi adibide hauetan ikus daitekeen bezala, mapak nolakotasun anitzak erakuts ditzake; bestaldetik euskararen balio erantsia ere agerian utziko du. «Rock Radical Vasco» delakoaren baitan badagoelako gazteleraz sortu duten musika talde ugari: mezu politikoaren izaera dela eta, euskararen erabilera elementu gehigarri gisa aitortu zaie talde hauetako askori, haien partaidetza politikoa ukatu gabe euskararen erabilerarik egin ez denean. Euskaraz abesten ez duen RRVko edozein taldek, batez ere, kosmos berdineko partaide gisa (euskal esfera iraultzaileko partaide) izatearen arabera egituratuko da.

Identifikatutako ardatz hauen arabera ondorengo kasuistikak suertatu daitezke:

1. Kontrakultural-underground bektorea. *Queer*-ari historikoki egokitu zaion nitxoan, berak, *queer* ahotsak, lehiatu behar izan du lehenetsunezkatzat jo diren edo premia-koagotzat eta garrantzitsuagotzat jo diren beste ahots eta aldarrikapen batzuekin. Iraultzailea eta errebindikatzaila izaterako garaietan hautaketa eta bazterketa prozesua ematen baita. Zeren alde egin aldarri? Aukeraketa honek ondorioak ditu. Topikoan oinarrituz, ohikoena letragintza errebindikatzaila letra miszelaneoak izan dira, hau da, gai guztiak lantzea, definizio konkreturik eman gabe: feminismoa, ekologismoa, euskara, estatuarekiko botere harremanak, tematika LGTBQ-a eta abar.

2. Bektore politiko errebindikatzaila (*queer* ahotsa kontutan hartu gabe). Gutxiengoa izaterakoan, esparru errebindikatzaila merkatu *mainstream*-arekin alderatuta, parekideen artean lehiatu behar izateak, elkarren artean aldarrikatzen duen eszena kontrakultural guztiak zaildu egiten du berezko ahotsa garatzea, zilegiztatuta ez dagoelako. Agendak, garrantzizkoak eta urgentzetat ulertzen denaren zerrendak eta ordenak agintzen baitute. Sortzaile gutxituen artean elkarren borroka ematen da hedapena eskuratzeko asmoz, espazio eta ekosistema mugatua: merkatua.

3. Bektore errebindikatzaila, identitatea nabarmenduz (euskara nabarmenduz). Nortasun konplexuak bereganatu ezin izatearen kontzeptu okerra eman da askotan, mezu zuzenen eta ulerterrazzen beharra gailendu da. Honek, aldarri bat lehenestea eta gainerakoak ikusezin bilakatzea bideratu izan du, aldarria beti dimentsio bakarra izan beharko balu bezala, sortzaileen dimentsio aniztasuna isilarazten, eta ondorioz, aldarrien agenda bat osatzera behartuz. Mezu bakarra + euskara. Ez balego bezala gai eta errealitate konplexuagoen inguruan abesteko parada.

Bektore desberdinek dinamika konplexua ematen dute igortzen den mezuaren, mezu hori jasotzen duen publikoaren eta publiko horrek egindako harreraren (pertzepzioaren) artean. Dinamika konplexu horien ondorioetako

batzuk, *queer* ahotsari dagokionean, ondorengoak izan daitezke: *queer* pertsonen intentsitate baxuko errebindikazio-maila batera baztertutako gutxiengo bateko kide izatera mugatzea, apetatsua, garrantzi gutxikoa edo denboran atzeragarria dela ulertuta, beren errebindikaziorako garrantzia kanpotik osatzen den agenda batera lotuz.

Underground-kontrakulturaletik ezinbestean abiatu da *queer* kulturaren eta LGTBQ+ musikaren irudikapen oro. Merkatu garaikideak ordea, LGTBQ+ komunitatearengan kontsumitaille nitxo bat identifikatu eta *mainstream*-ean barneratzea bideratuko du. *Queer* komunitatea oro har *mainstream*-an onartu eta baimenduko da, merkatuaren esparru konkretua horretarako egokituz. *Queer* komunitateari kontsumitzea baimenduko zaio, sormen lanak espreski baimenduko dira, irudiak identifikatuz eta ikono gisa aldarrikatuz, baina komunitatea berari bere ahots propioak sortzeari mugak jarriko zaizkio. *Mainstream* izatera pasatzearekin batera merkatuaren mesedera egokitu beharko da, hortaz zuzentasun eta neutraltasuna inposatuko da, jatorri kontrakulturalaren ezabatze prozesua bideratuz.

Queertasuna pertzepzioari lotua dago, hortaz, norberak nola hautematen duen bere burua eta kanpotik nola izango den hautemana daude jokoan. Bai eta jarrera, mezua, hau da, ekintza eta hitza: performatibitatea. Judith Butler datorrit burura, eta nola ekintzaren bitartez eraikitzen den nortasuna, denboran zehar bizirik dagoen eraikitze prozesua bezala.

Musikariek beste sortzaileen artean berezitasun konkretua izango dute, ezaugarri berezia. Nolakotasun hori performatibitatea izango da, hau da, oholtzara igo behar izateak, non sorkuntza eta sortzaile bat egingo diren eta biak bereiztea zaila izango den. Aktore, idazle, margolari, zinegileetatik desberdinduko dituen ezaugarria izango da. Pertsonala, pribatu izatetik publiko izaterako bidea ezinbestean eman beharko balitz bezala. Musikariak performatu behar duelako sormen lana gauzatzeko, eta ez duelako paper bat antzetzten, batzuetan hala izan badaitete ere. Aktoretik desberdina den toki batetik emango da oholtzaratze lana, sortzailearen lana eta sortzailea bera nolabait batuko dituen.

Feminismoari esker eta mugimendu feministari esker LGTBQ+ kolektiboak babes berezia eskuratu du. Feminismoaren haria genero gatazkaren nolakotasunen auzia mahaigaineratzeaz gain, agendan lehen mailako gai bezala onartu delako *queer* mugimendua, feminismoaren aterkiaz lagunduta. Zinema eta literaturaren aldea, musikarekin alderatuta agerikoa izango da. Badago *queer* literatura, *queer* zinema; jaialdiak, sortzaileak, apalategi eta zutabeak bideoklub, liburutegi eta euskarrietan. Alde horretatik oraindik lan egiteko asko dagoela esango nuke.

Mikel Zumeta



MUSIKA, BERDINTASUNA ETA LGTBIQ+

Resumen de temas de jornadas en Kutxa Kultur, noviembre 2022
Dibujos: Pernan Goñi

Darryl W. Bullock



David Bowie
Made Me Gay
100 Years Of
LGBT Music



COMUNIDAD GAY
como pionera
en cultura musical,
grabando discos...



Oír música
como recibir
un abrazo

1916 - JAZZ

60 años antes de Stonewall



"Pretty Baby"
canción sobre su novio, un blanco que ejercía la prostitución.



Bessie Smith
Canciones sobre mujeres que tienen sexo.

CANCIONES QUE FUERON IGNORADAS



Ma Rainey
"All Women's Parties"
Lesbiana, detenida en una fiesta.



Entre guerras, años 20 y 30, explosión masiva



Gladys Bentley
"CAMP"



AÑOS 50
en UK podías ir a la cárcel por ser GAY



ROCK Little Richard...



Con el ascenso del fascismo, se fue acabando la apertura.



CAMPOS DE CONCENTRACIÓN



Gladys trabaja en clubs más pequeños...

...entraba y salía del armario...

AÑOS 60



David Bowie admite que fue gay

Glitter Rock
Glam Rock
1972



JOBRIATH
La primera banda del Rock'n'Roll
"I'm a man"

1er DISCO música disco GAY
"Glad to be Gay"

80's Boy George
New Romantics
Pet Shop Boys
Judas Priest
R.E.M.
George Michael



Vienen de clubs gay
Spandau Ballet



Frankie Goes to Hollywood
The Communards



Freddie Mercury
SIDA

HOMOFOBIA
en los 90s
REGGAE
Beastie Boys,
Public Enemy
Eminem



ATAQUES A CLUBS GAYS
5 muertes en Orlando



Seguir LUCHANDO por los derechos LGTBIQ+

PIRO SUBRAT



INVERTIDOS Y ROMPEPATRIAS

Marxismo, Anarquismo y Desobediencia Sexual y de Género en Estado español (1868-1982)

- Música y disidencia sexual de género.
- Franquismo y Postfranquismo.
- Punk y Contracultura.

Hay más transmericabibollo en PUNK que en todo el resto de la música.

La música es una fuerza política.



Glad To Be Gay en casa de ANASTASIA RAMPOVA

CANET ROCK 1975-78 (una orgía marica) Festival totalmente cercado por la Guardia Civil



EL TITI "libérate" (1977)



- Susana Estrada
- Las XOXONEES
- Chus Gutiérrez
- Christina Rosenvinge
- Tino Casal
- OBK

PRIMER PUNK - LA MORGUE (Mocuetes) - 1609 PAP - Peligro GAY Vigente LEY DE PELIGROSIDAD

Cucharada 1981-1992 - PUNK Desmanchización NAZIS... EHGM CIGATRIZ "Escupe a los gays - homofobia misoginia (EIKORBUO)"

La Polla Records "Animal sin nombre" 1988



CANCIONES y VIDEOCLIPS TRANS en Madrid



ROMAZ



Amor de la calle




Oskar Kan X

LAS BAJAS PASIONES

Rodrigo Cuevas



Queer Punk Madrid



LAS MARICARMEN



Mikel Chamizo



ÓPERA QUEER

ÓPERA como arte Performativo FANTASIOSO FANTASIA



HOMBRES ADOLESCENTES cantados por MUJERES 1660-1700 "Papeles con calzones" En un momento dado, la actriz evidenciaba su cuerpo

Ethel Smyth

A partir de 1910 participó en movimiento SUFRAGISTA



Sufrió MISOGINIA Lesbiana, "amiga" de Virginia Woolf



El más importante compositor de óperas GAYS:

Benjamin Britten

Ópera "BILLY BUDD" (todo hombres)



MASCULINIDAD "La Tormenta de Finlandia"


Ópera "MUERTE EN VENECIA"

Escena en barco de guerra, donde los marineros "manipulan" torpedos...

Ópera TRANSEXUAL

"AS ONE" Ópera de Laura Kaminsky

Hannah Before Hannah After



BISEXUALIDAD

"LAS HORAS" (película) Como ópera, recién estrenada.

Se juntan las 3 mujeres en un espacio atemporal



INTERSEXUALIDAD

"Alicia B." de Raquel García-Tomás (Historia de Herculine Barbin.)



QUEER

Los CASTRATI

* La "Castración por el Arte" se remonta al siglo XII, en España y Bizancio.

* La Iglesia fomentó los Castrati porque las mujeres tenían prohibido cantar.

* Sus voces ya no existen (la práctica ya no se hace)

* En s. XVII y XVIII no existía la terminología de hoy.

* EL CASTRATO era considerado como un niño.

* Eran objeto de DESEO.

* Lo fantástico (NIFAS)

* En UK tuvieron gran éxito. moda del "vicio sodomítico"

* También atractivo para mujeres.



* Causaban SENSACIÓN y FASCINACIÓN

"FARINELLI"

En la ópera Julio César de Händel hay 3 papeles para castrati. ¿Cómo interpretarlos hoy?

MILA ESKER



MESA DE IGUALDAD DE GÉNERO

AINARA LEGARDON



Artista
Autogestionada
Discografía propia
Temas de Derechos



Rocío Saiz
(MIM)



AMAIA
Ispizua
"Get In"

Promotora de
Comunicación

"Es difícil
ROMPER
los techos
de cristal"



Myriam
Miranda

4 de cada 5
grupos en los
FESTIS
son de hombres

MAHAI-INGURUA: ESZENATOKI ETA PLAZA SEGURUAK

ZER DA ESPAZIO SEGURU BAT?



KATTALIN
MINER
(Eihera)



Julen
Etxebarria
GENITU



Izei
Etxebarria
MEDIAZ + TALKA

1 ERASORIK
GABENO
ESPAZIOA

2 ADIERAZPENAK
EZ DITUZTE
EPAIRIK JASOKO

3 BABES eta
ZAINTRA SAREA
Bermatzen

Etengabe erabiltzen

Euskal Herrian
SORTU
egin behar ditugu
espazio segurua

Kattalin
Miner

ELI ETXEBESTE

GIRO IN GONDOLA



DONOSTIA - MUNICH - BERLIN - HAMBURG - DOMESTIC

CUESTIÓN DE
GÉNERO
en 80's



Gladys del Estal



Mari Jose
fue violada
x la O.C.




ASAMBLEA
DE MUJERES

- 1- Etxebarria
- 2- Mujeres
- 3- Lesbianas



LAS VULPES
Las
TRIKIPUNK



Mikel Zumeta



Euskal Herria
LGBTIQ+ musika
lokalizatze
ZAILTASUNA

Pertsonala
Politikoa
da



Moedades
"Amor de hombre"



Zeinu politikorik gabe

EsKorbuto
"Cerebros destruidos"



Rok euskalduna
MASKULINOA
Apor bat maitista

Gizona
agerian



Musikariak
GAI BAT
aurrekaratu eta
defendatu behar dute

Euskadi
EUSKARA → lehenetasuna
Ezer ere ez
LGBT → Pribatutasunera
bidali

Euskara
balio
itsatsi
bat

QUEER
MUSIKA
zaila da
identifikatzen → Jarrera?
Pertsona?

LETRA
ambiguak?

La Otxoa
FOLKLOREA?

Yogurinha

DUT
taldea
"Sexu mugarik ez"

"Ezti Potoa"
FERMIN
MUGARUZA
- D U T -

Chico y Chica
Felix Daniel & Lourdes Meadow
DOCTOR DESEO

PERIFERIAN

VULK
Hipermaskulinizazioa
mailua (live)

LIKIDO-TASUNA

MÚSICA, CREATIVIDAD E IDENTIDADES NO NORMATIVAS

Sergi Fabregat
FUTURA
CHICA POP
(Barcelona)

- Canciones de amor, desamor...
- Intentar no escribir desde la víctima
- Sexo convexo

EUSKO PRINCESS
Hernaniarra.

Ez dut INDARKERIA
jatan, pertsonalki,
momentuz.
Badakit badagoela.

Galder
Perez

Eneritz Furiak
Irvingoa
EMADAN

Musika elkarrean
7 emakumeek.

Indarkeria
gauza tabela da.
Zure boterea zintantzen
jartzen da.

Beste mundu
bat sortzea

Dani
BALAGUÉ

Centaurus
Proyecto Colaborativo

Ir a los lugares
oscuros, y daniel
un poco de luz?

DIFERENTES
NOMBRES

FUTURA
CHICA
POP
no encanta
el POP

Eusko
Princess

ACTUAR
Momento
de PODER.

Difumina d'EGO
para subrayar
la CANCIÓN

2023ko Azaroak 24 eta 25

Donostiako KUTXA KULTUR KLUBan

Eneritz Furiak

FUTURACHICAPOP

KONTZERTU

Eusko Princess

Algora



L E K U  N A

[FABRIKA]

SORTU • CREA

[MUSIKA]



DANTZA
LITERATURA • HARREMANAK • BIZIPENAK
EMOCIONES • EXPERIENCIAS
CONOCIMIENTO
KULTURA

 **KULTURA**
kreaktiboia


ERRETERIA
UDALA

MÚSICA VASCA CONTEMPORÁNEA EN NUEVA ZELANDA



Tras dos años en los que se suspendió debido a la pandemia, en agosto de 2022 volvió a celebrarse el festival ISCM World New Music Days que organiza la Sociedad Internacional para la Música Contemporánea. Esta sociedad transnacional, que en 2022 celebraba el centenario de su fundación, es la más antigua del mundo entre las que se dedican a la defensa y difusión de las músicas de nueva creación en el ámbito clásico, y actualmente reúne en su seno a más de 60 miembros de todos los rincones del mundo, en su mayoría instituciones comprometidas con la música contemporánea que asumen la representación de la ISCM en sus respectivos países.

En Euskal Herria, la membresía de la ISCM la gestionan conjuntamente Musika Bulegoa y la Asociación de Compositores Vasco-Navarros Musikagileak. Desde que entraron a formar parte de la ISCM en 2016, las dos asociaciones vascas han puesto en marcha programas de intercambio con países como Egipto, Rumanía, Rusia, Francia o Suiza, y a través de su participación en el festival anual World New

Music Days, la música de compositores vascos como Iñaki Estrada, María Eugenia Luc, Isabel Urrutia, Gabriel Erkoreka y Helga Arias se ha interpretado en países como Corea del Sur, Canadá, China o Estonia.

En 2022, la ISCM posibilitó que la música vasca sonara nada menos que en las antípodas, ya que el festival se celebró entre el 23 de agosto y el 1 de septiembre en dos ciudades de Nueva Zelanda: Auckland y Christchurch. La Asociación de Compositores de Nueva Zelanda (CANZ) fue la anfitriona de un festival que respetó casi en su totalidad la programación que iba a tener en abril de 2020, cuando el evento fue suspendido a último minuto por la expansión de la primera ola de covid-19. El nuevo festival coincidió en el tiempo con la apertura de Nueva Zelanda a los visitantes extranjeros, ya que el país se había mantenido completamente aislado durante más de dos años.

A lo largo de diez días y de decenas de conciertos, el festival neocelandés incluyó actuaciones de orquestas, ense-

bles y solistas profesionales, conjuntos y coros amateur, instrumentos folclóricos de Aotearoa como el *taonga puoro*, veladas electrónicas y espectáculos audiovisuales, instalaciones, etcétera. Durante el tramo final se celebró asimismo el festival de la Asian Composers League (ACL), por lo que el público pudo escuchar una amplia selección de la música más innovadora procedente de todos los puntos del planeta, con un especial énfasis en la que se está creando en Asia y Oceanía.

La música vasca sonó también durante el festival, ya que dos compositores fueron elegidos para participar en su programación: Mikel Urquiza y Juanjo Eslava. Del primero se interpretaron sus *Cinq pièges brefs*, un trío para violín, violonchelo y piano que ya había obtenido el segundo premio en el Matan Givol Competition for Composers de 2019. El NZ Trío, uno de los conjuntos de cámara más prestigiosos de Nueva Zelanda, presentó esta obra en el Q Theatre de Auckland el 26 de agosto en presencia del compositor bilbaíno, que viajó hasta las isla para asistir a los ensayos y al concierto.

La segunda obra vasca que se pudo escuchar en Auckland fue *Máscaras*, del autor navarro Juanjo Eslava. Se trata de una creación electroacústica en 8 canales que investiga el concepto de máscaras identitarias aplicadas a la voz, y que se presentó en un concierto que tuvo lugar durante el primer día del festival, el 23 de agosto, en la Audio Foundation de Auckland, un museo y centro de creación dedicado específicamente en la música electrónica y experimental. Tras esta primera presentación, *Máscaras* volvió a repetirse a diario durante un mes, ya que se mantuvo en el museo neocelandés a modo de instalación sonora.

Concurso de composición de obras corales

Para celebrar el centenario de la ISCM, Musika Bulegoa y Musikagileak, en colaboración con otras instituciones musicales de Suiza y Letonia, anunciaron en abril el primer Concurso Musika Bulegoa-ISCM de Composición para coros amateur, con el objetivo de dar nuevo impulso al movimiento coral contemporáneo.

Tras la recepción de más de cuarenta obras procedentes de todo el mundo, el jurado decidió otorgar el Primer Premio ex aequo a las propuestas de la compositora italiana Carlotta Ferrari y del compositor gallego Luis Serrapio, así como una Mención Especial al compositor portugués Gerson Batista. Además del premio monetario, ambas obras fueron estrenadas el 31 de octubre en un concierto especial en Santa Teresa de Tolosa, en el marco del 53 Certamen Coral de esta localidad guipuzcoana. El estreno estuvo a cargo del coro KUP Taldea que dirige Gabriel Baltés, y tras su paso por Tolosa las obras ganadoras volvieron a ser interpretadas dentro de la programación del XIII Circuito Musikagileak de Música Contemporánea, el 19 de noviembre en el Museo San Telmo de Donostia.

Mikel Chamizo

Musikagileak



LOS GANADORES

Carlotta Ferrari (1975) fue catedrática de Composición en la Universidad Normal de Hebei en Shijiazhuang (China) y actualmente es profesora adjunta de Composición musical en el Departamento de Artes y Música de la European School of Economics (Firenze, Italia). Estudió en los Conservatorios de Milán y Florencia y ha desarrollado un lenguaje personal que busca la mezcla del pasado y el presente. El jurado premió su creación *The Heart Asks Pleasure First*, sobre una poesía de Emily Dickinson, por «la perfecta adecuación que logra entre la música y el intimismo del texto».

Luis Serrapio (1992) estudió trompeta en el Conservatorio Superior de Música de Vigo, en la Zürcher Hochschule der Künste de Suiza y en la Hanns Eisler Musik Hochschule de Alemania. En su obra *Així com Cell*, sobre el poema homónimo del poeta valenciano Ausiàs March, se inspiró en las formas vocales medievales como son los motetes o los madrigales. El jurado valoró en ella «la personalidad de su lenguaje armónico y el lirismo de la escritura vocal».

Se puede acceder a la grabación y partitura de ambas obras en el canal de YouTube de Musika Bulegoa en el siguiente link:



CANAL
MUSIKA BULEGOA



MOTXILA

21

MUGAK ROCKAREN BIDEZ APURTUZ

21 bat lagun gara eta primeran jotzen dugu . Zehaztasunez laburbildu digu Itziar Segurak (27 urte, tinbala eta ahotsa) zer den Motxila 21, Iruñean errotutako musika taldea. Eta, hau esan ondoren, tinbala gogor astintzen jarraitzen du, musika egiteko eta musikaz gozatzeko kromosoma bat gehiago edo gutxiago izateak ez baitu inolako garrantzirik. Jaun-andereak, zuekin Motxila 21, rock doinuek ertz zorrotzeko mugak muga propioak eta gizarteak ezarritakoak apurtzeko erabiltzen dituen lagun taldea.



©. Foku

BECen 2022ko maiatzaren 22an egin zen ekitaldian, “bultzatzen duen elkertasuna eta musikarien arteko elkarlana eredugarria delako”, sari berezia eman zion Euskal Herriko Musika Bulegoko zuzendaritza batzordeak Motxila 21 talde inklusiboari. Halaber esan behar dugu, nahiz eta gehienontzat ezaguna izango den, taldearen izenari buruzko xehetasun bat: Motxila, bizkarrean daramaten motxila irudika dezake; 21 zenbakia, hain zuzen ere, Down Syndromearekin jaiotzen direnek daukaten 21 izeneko kromosoma bikoiztua da.

Nafarroako Down elkartetik sortutako musika banda honen bidaia kide anitz bereganatzeko gaitasuna erakutsi du bere sorkuntzatik: familiarrak, boluntarioak... baita rockaren mundua ere. Honetan bi izen aipagarri: El Drogas eta Kutxi Romero, taldea hauspotzen berebiziko garrantzia izan duten musikariak. 18 urteko ibilbide oparo honetan ehun kontzertu baino gehiago eman dituzte, baina une gorenak aipatzearen: Fito Cabrales edo Fermin Muguruza bezalako musikariekin egin dituzten zuzeneko kolaborazioak, Londresen eta Italian egindako emanaldiak edota kaleratu dituzten bi diskoak.

Azkena, *Ama Lurra* (El Dromedario Records, 2022), DVDa daraman disko-liburu dotorea da. Hamar kantez osatuta, ekologia, feminismoa, errespetua eta askatasuna du ikur... eta, ziur asko, gutxi dakite Calexico talde estatubatutarreko Joey Burns erakarri dutela lan honetarako.

“Gure musika denona da / Munduarekin partekatu nahi dugu / Abesti hau zuretzat egina da”, dio Lorea Lamatak (tinbala eta enbolo-flauta) idatzitako *Lorexikaren ametsa* kantaren leloak. Jatorrizko abestia Calexikorena da eta Loreak gaztelaniaz idatzitako bere letra gehitu zion. Diskoan Joey Burnek Lorearen kanta ingelesez abesten entzun daiteke. “Uste genuen ez zigula kasurik egingo, baina proposamena zertarako zen esan genionean, berehala baietz esan zigun”, dio Teo Lázarak. Boluntario gisa *manager* lanak egiten ditu Teok.

Rock izarrak mugiarazten dituzte? Txupinazoa bota zuten 2018an? Ospetsuak dira gero Motxila 21 taldeko kideak! “Rocka egiteko, talentua ez ezik burua ere behar da”, bota digu bat batean Ramon Primok (tinbala). Goazen entsegu gelara.

Entsegu batean, Queen

Hotza, barruraino sartzen den hotza daukagu Iruñean, 2023ko urtarril artiko honetan. Iluntzen ari da eta Arrosadiako dorreen azpiko entsegu lokal baten ate aurrean gaude, bertan Motxila 21eko kideek hitzordua dute eta. Txantreako lokaletik Nafarroako hiriburuko bi eraikin ikoniko hauetara pasa berri dira. Hemen haizeak noizean behin alde orotarik jotzen du, gupidarik gabe. Hala ere, atea zabaldu bitarteko itxaronaldian ez da giro txarrik edo umore ospindurik sumatzen. Alderantziz, primeran pasatzeko gaitasuna dute, berehala igertzen zaie.

Gazte hauek hotzari, oztopoei eta aurreitziari –hots, “desgaitzat” jotzen dien gizarteari– ez diete muzinik egiten. Rock-a egiten ari diren bitartean, bederen. Entsegu gelara sartu garenean hango tinbal, bateria, saxo eta gitarren burrunbak mamu guztiak uxatzen ei dituzte; musikak birtute hori du eta.

Antzerkia, dantza eta musika ditu gustuko Itziar Segurak. Bueno, interes anitz dituela ematen du, bizitasun handiko neska dirudielako. Aiurri sendokoa ere. “Itzelezko giroa dugu eta primeran konpontzen gara”. Kito! Ez dago ezer gehitzerik.



Ikastola batean lan egiten du hurrekin, 2019 urtean sartu zen taldean eta egun tinbala jotzen du; horrez gain astelehenetan bateria ikasten du ere bai. “Pop, latinoa, Berri Txarrak, Ken Zazpi, Esne Beltza...”, zerrenda amaigabea ematen digu gustuko musika zein duen galdetzen zaionean.

Hurrengo zuzenetarako berreskuratu dute Queen-en *We Will Rock You* kantaren bertsioa, eta hor ari da Itziar ahotsa jartzen, Leire Zabalzarekin batera (dantzaria eta musikaria, kirol denda batean saltzaile, futbola izugarri maite du). Queen, ez da erronka makala. Ezagutzen al zuen Itziarrek Freddy Mercury? “Ikusi nuen pelikula eta buaaaal, gustatzen zait asko, eta nire artista kutunena da. Eta kito!”.

Tinbal multzo handiaren parean, entsegu gelan Andoni Zilbeti gitarra jole eta abeslaria ari da lanean jo eta ke; ondoan, Ainhoa Lizarraga, akordeoilaria. Biak boluntarioak, biak beste musika taldeetan aritutakoak. Ainhoa Aintzaneren ahizpa da (tinbala eta pandereta; begi urdin bizi-biziak ditu) eta, Marijose Leozekin batera, hein handi batean Motxila 21ren sorkuntzaren “ideologoa” izan da.

Marijose bi saxojolei laguntzen ari zaie, zuzenekoetan egiten duen bezala, oholtzaren gainean bera ere musikari bihurtzen baita. Borja Ortiz semea du (saxojole dotorea, erabat rockeroa) eta emakume hau da egun Nafarroako Down Syndromearen Elkartearen lehendakariordea: “Musikari lotutako zerbait egin nahi genuen, baina kolektiboa izan behar zuen. Eskeintzen zitzaiguna, ordea, bakarkako jarduera indibidualak ziren: klaseak eta horrelakoak, eta ez genekien nola uztartu guztiak elkartzeko. Egun batean, Ainhoari sasoi hartan lan egiten zuen lekuan bateria bat oparitu zioten eta...”

Eta 2005 hartan sortu zuten Motxila 21. Askok lortu dute ordutik hona; dena den, senideek beraiek nola bizi izan dute bilakaera hau? “Oso garrantzitsua da, beraiek beren aisialdiaren protagonista bihurtu direlako, eta hori ez da oso errez gertatzen. Beste batzuk saiatu dira, baina ez dute lortu. Gurean, ordea, lortu da. Taldea erabat anarkikoa da: bakoitzak nahi duena egiten du, hemen ez dago araurik... arrakastatsua eta era berean inperfektua da. Izan ere, inperfekzio horretan dago Motxilaren gakoa”.

Amaia Ereñaga



BIME

ELKARTASUN

BIDEA



**SUPPORT
YOUR
LOCAL
MUSIC
SCENE**

**LIVE
DMA**

Hamar urte bete zituen Bilboko BIMEk 2022ko urrian. Pandemiak gelditu ez zuen azokaren urteurrenak partaidetza nabarmena izan zuen. Aldez aurretik, maiatzean, Kolonbiako BIME Bogotáren lehendabiziko edizioa antolatu zuten. Bi egitasmo hauei esker Europa eta Amerika batuko ditu aurrerantzean BIMEk eta aukera berriak eskainiaz musikaren zabalkundean ezinbesteko zubian bilakatuko da.

Maiatzaren 4tik 7ra antolatu zen BIME Bogotá-ren lehendabiziko edizioa. Musika Bulegoak Basque.Music. plataformarekin parte hartu zuen bertan eta Zetak taldearen showcase arrakastatsua antolatu zuen. Hor entzun genuen lehendabiziko aldiz Li Saumet (Bomba Estéreo) euskaraz abesten *Zoriontasuna (La vida es de verdad)*. Topaketa honi esker Musika Bulegoak Hego Ameriketako delegaritzaren bileretan parte hartzeko aukera izan zuen, Idartes Institutua edo Chile Música bezelako ordezkartzeekin harremanak lantzeko aukera izan genuelarik. BIME Bogotáren lehendabiziko edizioa etorkizunean sortu daitezkeen elkarlan ugarien lehen urratsa izan zen.

2022ko urriaren 26tik 28ra egin zuten BIME azokaren hamargarren urtemugak argi utzi zuten Bilboko topaketa estatuan egiten diren azoken artean erreferente nagusian bilakatu dela. Musikaren industriak etorkizunean aurre egin beharreko erronkak aztertzeaz gain, gaur egun sektorean eragina duten gai nagusiak landu ziren: osasun mentala, digitalizazioa, kanpo zabalkundea, jasangarritasuna, ekitate, artistaren estatutua, etabar.

Musikariaren eta musikaren profesionalen osasun mentala zaintzea ezinbesteko erronkan bilakatu da Musika Bulegoarentzat. Horregatik, Musika industriadako osasun mentaleko gida argitaratu genuen. Urtekari honetan aurkitu dezakezue, Rosana Corbachori egindako elkarriketarekin batera. Gida elkarrekin lantzeaz gain, Musika Bulegoaren bazkideei zuzendutako osasun mentalaren inguruko aholkularitza zerbitzua eskaintzen du Rosanak.

Azken urteotako ildoari jarraituaz, Musika Bulegoak hainbat ekimen antolatu zituen BIMEren inguruan: DEMEC topaketak musikaren zabalkuntzan lan egiten duten Europako hainbat bulego elkartu zituen. EMEE elkarteak bultzatutako proiektu honek Basque.Music. ezagutarazteko balio izan zuen. Europako musika aretoen Live DMA elkarteak hamargarren urtemuga Bilbon ospatu zuen. Kontzertu aretoen egoera aztertu zuten mahai-inguruez gain hainbat ekitaldi eta lan bilera antolatu zituen aurrerantzean eman beharreko pausuak aztertzeko. Bi ekimen horiei Kolonbiako eta Portugaleko delegatuekin harremanak sendotzeko antolatu ziren topaketak gehitu behar dizkiegu.

Eusko Jaurlaritzarekin eta Etxepare Euskal Institutuarekin elkarlanean osatzen dugun Basque.Music. markaren babesean Idoia, MICE eta Merina Gris-ek kontzertuak eskaini zituzten Bilboko erdigunean dagoen Stage Live aretoan. Jende eta profesional ugari bildu zen




emanaldietan. Gainera, Merina Gris taldeak Seattleko KEXP irratsaioak kudeatutako agertokian kontzertua eskaini zuen.

Euskalduna Jauregiko hall nagusian Basque.Music. stand-a ere dinamizatu genuen, eta BDCC-ko standarekin elkarlanean musika sektorearen ikusgarritasunean eta profesionalizazioan lan egin genuen.

Arkaitz Villar

Musika Bulegoa



HERTZAINAK



© José Mari Martínez

Tras los dos conciertos de 2019 en Kafe Antzokia y el Euskalduna, en los que recuperaron el repertorio de Hertzainak, Josu Zabala y Gari decidieron darle a la banda una despedida por todo lo alto con dos nuevas citas en el BEC de Barakaldo y otra más en Mendizabala de Gasteiz, y esta vez junto a otro componente histórico del grupo: el baterista Luis Javier Saiz *Txanpi*. Si en Gasteiz apostaron por un concierto «más íntimo» con invitados como Manex Agirre, Paula Amilburu, Xabier Amuriza, Juantxo Arakama, Miren Narbaiza o Ruper Ordordika, los dos conciertos del BEC se convirtieron en grandes fiestas en las que sonaron todos los hits que ha ido acumulando en 40 años de trayectoria el grupo vasco, que dio su primer concierto en Gasteiz en la Nochevieja de 1981.

SOINUA IRATZARRI




Si Hertzainak coronaba por todo lo algo una trayectoria de cuatro décadas, más de 200 niños de entre 10 y 12 años daban sus primeros pasos en la música, en este caso contemporánea, gracias al laboratorio de creación musical Soinua Iratzarri, que en 2022 celebró su quinta edición organizado por Musika Bulegoa. Tras cinco meses de trabajo junto a la compositora Haizea Huegun, la pedagoga Maite Bilbao y el compositor Xabier Otaolea, los niños de EGAPE Ikastola de Urnieta presentaron sus nuevas creaciones en un gran concierto en Sarobe, y los de Samaniego Herri Ikastetxea hicieron lo propio en el Teatro Leidor de Tolosa.



soinua IRATZARRI

Euskal Herriko Musika
Bulego elkartearen Soinua
Iratzarri, haurren irudimen
musikala sustatzen duen
sorkuntza lantegia da.



KEPA JUNKERAREN

HAUSPO BERRIA



©: Gari Garaialde

1987an, *Infernuko auspoa* deituriko diskoarekin, sartu zen Kepa Junkera (Bilbo, 1965) lehen aldiz Lasarte-Oriako Elkarreko estudioetara. Bilbotarrak 22 urte zituen, baina ez zen musikara iritsi berria; hainbat trikitixa txapelketetan lortutako emaitzari esker, sona hartzen hasia zen. Hiru hamarkada, 30 diskotik gora eta hamaika arrakasten ondoren, Junkerak infernua ezagutu zuen lehen eskutik, 2018an, Belgikan kontzertu bira baten erdian zegoela, iktus bat izan zuenean. Gaitzak berriro mugitzera eta hitz egiten ikastera behartu zuen bizkaitarra; musikarekin eta, orokorrean, sorkuntzarekin, noski, erlazioa ere ez zen bera izango, ezin zitekeen izan.

Hainbat sariketetan txapela lortu edo finalista gelditzearekin batera, Oskorreren orbitan kokatu behar ditugu Junkeraren hastapenak, 80. hamarkadan. Joan-etorriko erlazioa izan zen hura: Natxo de Feliperen taldeak bizkaitarra gonbidatu zuen, esaterako, Alemanian zehar egin zuten bira famatu hartara. Bueltan, Junkerak Oskorreriko hainbat musikari –eta lagun– bidaide izan zituen lehen lanetan –*Infernuko auspoa* (1987); *Triki up* (1990); *Trikitixa Zoom* (1991) eta *Kalejira Al-buk* (1994) diskoetan, esaterako–, baita gerora ere.

Urteak aurrera joan ahala, espazio musikal berriak ere ikertzen hasi zen Junkera, tradizioari muzin egin gabe, noski. Euskal instrumentu tradizionalen aldeko apustua mantendu zuen, baina ez zen trikitiaren ohiko melodia eta erritmoetan gelditu; konposizio originalak haien lekua aldarrikatzen hasiak ziren eta musika beltza, jazz, rocka edo bestelako koloreak folkarekin nahasteko joera agerikoa egin zen. Oskorreriko musikariena ez zen kasu isolatu bat izan; Kepa Junkeraren ibilbidean zerbait azpimarratu beharko bagenu, lagunez inguratzen duen trebetasuna da hori. Instrumentu tradizionalak aldarrikatzeko garaian, esaterako, denbora luzez bere taldean lagun izan zuen Ibon Koteron albokariarekin argitaratu zuen *Leonen Orroak* 1996an. Albokarekin egin bezala, panderoa eta pandero-joleak ere omendu nahi izan zituen gero. Horregatik, 2014an, Sorgiñak deituriko emakume gaztez osaturiko taldea sortu eta haiekin, trikitiz, perkusioz eta ahotsekin soilik, iragana eta oraina uztartu zituen.

Gauza bera egin nahi izan zuen ahozko tradizioarekin, iragana eta oraina uztartu, bertakoa eta kanpokoa batzen zituen bitartean. Ideia horretatik jaio zen euskal kantutegi tradizionalari eskainitako trilogia: *Etxea* (2008), *Kalea* (2009) eta *Herria* (2010). Album bikoitz bakoitzean kanpoko artistak gonbidatu zituen euskaraz gurean ohikoak zaizkigun abestiak kantatzera. 400 musikaritik baino gehiagok parte hartu zuten epopeia horretan. Aurretik, 2006an, *Hiri* kaleratu zuen etengabeko gorako bidean, beste mugarri bat. Europako World Music disko onenen zerrendan bigarren geratu zen eta mundu mailako zenbait sari garrantzitsu ere bereganatu zituen. Junkerarena bezalako curriculum batekin, ezin zitzaion muzinik egin berarekin lan egiteko gonbidapen bati. Ondorioz ez da harrizkoa euskal kantutegi tradizionalari eskainitako trilogian Jean-Marie Ecay, Chano Domínguez, Pau Donés, Miguel Bosé, Estrella Morente edo Ana Belén bezalako izenak topatzea.

Hamar urte lehenago argitaratutako *Bilbao 00.00h* disko bikoitzean, jada, mikroa eta makroa fusionatzeko ahalegi-

nak argiak dira. Bertan 52 kolaboratzailek parte hartu zuten, horien artean, Benito Lertxundi, Pedro Guerra, Dulce Pontes, Phil Cunningham eta Carlos Núñez, besteak beste. 50.000 ale saldu ondoren Urrezko lehen diskoa lortu zuen eta, are garrantzitsuagoa dena, Euskal Herriko musika zerrendetako lehen postuan ibili zen denbora batean. Joseba Martin kazetariak *Berpiztun* jaso bezala, bizkaitarraren diskoak bidaia izaera hartzen hasi ziren.

Iragana eta oraina; bertakoa eta kanpokoa. Bi elementu dikotomikoen sintesia lortzeko garaian, alkimista aparta da Junkera. Globala eta lokala, hemen eta han, zaharra eta berria, laguna eta ezezaguna, diatonikoa eta sinfonikoa, minimalismo musikala eta koralismo barrokoa... Bi ezaugarrien arteko nahasturaren zantzuak nabari daitezke bere ibilbidean, hasiera-hasieratik.

1991n Interpretate Gazteen Egungo Folkaren Erakustaldiaren bosgarren edizioan irabazle gelditu izanagatik argitaratutako *Trikitixa Zoom* eta 1993. urtean Belgikan Silex zigiluarekin grabatutako *Trans-Europe diatonique* kenduta, 1998rainoko lan guztiak Elkar estudioarekin ekoizi zituen eta bere ondoan izan zuen Jean Phocas soinu-ingeniari ezaguna. Hain zuzen, aipatutako *Bilbao 00.00h* diskoarekin etorri zen aldaketa. Madrilgo Resistencia zigiluak ekoiztu zuen eta inflexio puntutzat joenez, horrekin Urrezko diskoa irabazi baitzuen.

XXI mendearen jaiotzarekin bere alabaren omenez izendatu zuen *Maren* (2002) eta Bilboko Arriaga Antzokian zuzenean grabatutako *K* (2003) iritsi ziren. Biak EMI zigiluarekin argitaratu eman zituen eta biak folk disko onenaren Grammy Latinorako izendapena lortu zuten. Jakina denez, *K*-rekin irabazi zuen. Sari horrek, aurretik etorri ziren eta gerora ere etorriko zirenen bide beretik, hauspoari indarrez eragiten jarraitzeko grina ekarri zion Junkerari. Horretan dabil, oraindik ere.

Grina hori islatzeko helburuarekin, Fermin Aio zinemagileak Donostia Zinemaldiaren azken edizioan aurkeztu zuen trikitilariaren osatze prozesuan oinarritutako dokumentala. Ekitaldi berean, gainera, bere ibilbidearen omenezko Adarra Saria eman zion Donostiako Udalak, trikitilariaren familiak bere izenean jaso zuena. Bere emazte-ohiaren, Miren Goikouriaren, bultzadari esker sortutako film luzea da Aiorena, izan zena eta denaren arteko bidaia erakusten duen obra, isilean ezer gordetzen ez duena. Etorkizunera begira. Handik hilabete gutxira, abenduaren hasieran, dokumentalaren estreinaldi komertzialarekin batera, zinemagile nafarraren filmaren izenburu bera zuen liburua ere kaleratu zuten: *Kepa Junkera: Berpiztu*. Bertan, bizkaitarraren arxibo pertsonaletik ateratako argazki mordoxkarekin batera, Joseba Martin kazetariak, diskoz disko, Junkeraren ibilbidea aztertu du. Dokumentalak eta liburuak bizi berri baten aukera eman diote trikitilariari, hauspo berri bat eman diote euskal folkaren berritzaileari.

Harri X. Fernández



Argitalpena / Publicación:

Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea

Koordinazioa, edizioa eta zuzenketak / Coordinación, edición y correcciones:

Mikel Chamizo

Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación:

Eneko Etxeandia Sáenz

Lege gordailua / Depósito legal:

NA-2250-2017



MMXXII
